

TOKIKOM

2011ko uztaila | 106. zenbakia

ailkor!

eriko aldizkaria

Gori-gorian

ETXE ACONCAGUA 3D LEZAMA ETA LARRABETZUKO JAIAK JANTZI JARAUNTSI TROUPE



*Larrabetzuko Udalak
jai zeriontguak opa
deutguez herritar guztioi*



Larrabetzuko Udala

Ondo paga Andra
Mari eta Emeteriak

kukubiltxo.com
e.posta: kukubiltxo@kukubiltxo.com

ONDO EROSI
JANARIA + FRUTA
ETXERA ERAMATEKO
ZERBITZUA
94 455 84 47
Andra Mari, 15 behea - 48195 Larrabetzu

FOTERI TABERNA

Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98
48195 LARRABETZU-Bizkaia

BERRESONAGA S.L.

LARRABETZUKO BATZOKIA
TABERNA - JATETXEA
ASBATESUNAREN ENPERANTZA, 3
48195 - LARRABETZU (BIZKAIA)
TELF. 94 455 71 88

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUAK
eta GAUEZ
MUSIKA ETA PARRANDA

LARRABETZU
Tel: 94 455 84 77

Moro's Pub

Jai euskaldunak
opa dizkizuegu

arrekkikili
Larrabetzuko euskara elkarteak



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ixone Zubieta, Patxi Ugalde, Jon Goikouria Larrabeiti, Lezama eta Larrabetzu-ko jai-batzordeak, Lurdes Etxebarria, Patxi Diez de Ulzurrun, Asier Olazar, Jon Olabarriaga, Sondika Motor, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Bidera

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 EtxE



16 Aconcagua 3D



30 Jantzi Jarauntsi Troupe

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak / Laburrak eta albisteak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan...**
- 12 Gurean izan da... EtxE**
- 14 Gaztea eta... Arman Imaz, futbolaria**
- 16 Aconcagua 3D**
- 18 Sondika Urban Circuit**
- 22 Larrabetzuko jaiak**
- 25 Oliver Barry, bekaduna Móstarren**
- 26 Lezamako jaiak**
- 29 Lagatzu Eguna**
- 30 Elkarreak... Jantzi Jarauntsi Troupe**
- 32 Teknologia... Biharko ingeniariak**
- 35 Aikorrizketan... Oporretan biluzik**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**



• ZUZENKETAK • ITZULPENAK • ESKAINTZA ZABALA: euskara, gaztelania, katalanera, ingelesa... •

bidera itzulpenak

www.bidera.eu/itzulpenak



© 943-05 81 54

itzulpenak@bidera.eu

Azken istripu nuklear larria Japonian izan da. Lehenago Estatu Batuetan (Harrisburgekoa) izan zen; eta geroago, Ukrainian (Txernobilekoa). Eta hori, entzutetsuenak baino ez aipatzearen. Baina zenbat gorde dute isilpean enpresetako arduradunek/bakoek eta nazioarteko erakundetakoek, antza, inor artega ez dadin? Ez ote da susmagarria "gure mesedetan" darabilten isilpeko jokabidea?

Energia nuklearraren aldekoek, haren arriskugarritasuna ezeztatu gabe, aho batez esaten dute babes- eta kontrol-neurri handienez baliatzen direla. Eta, gainera, ikatzarekin, petrolioarekin eta gas naturalarekin alderatzen bada, energia-iturri hori garbiagoa eta merkeagoa dela. Eskarmentuak argiro erakutsi digunez, ordea, zorioneko neurriak hutsaren hurrengo izaten dira estualdietan, fisio-erreakzioek indar betean aurrera jarraitzeko joera dutelako. Etena zenbait protokoloren arabera egin behar da, astiro-astiro, eta hortaz, kasu askotan ez da egoten

...+ Fukushima +...?



PATXI UGALDE
(Aktore ohia)

okerra zuzendu eta kontrola berreskuratzeko adina denborarik.

Garbitasunari dagokionez, egia da, bai, zentral nuklearrek ez dutela berotegi-efekturik areagotzen, ez dutelako karbono dioxidorik eguratsera botatzen. Ho-

rren truke, tonaka hondakin erradioaktibo uzten dituzte, eta guk ez dakigu zer egin sastar pozoitsu horrekin, non/zelan batu, ekosistemari kalterik ekar ez diezaion. Irtenbideak behin-behinekoak dira, ez dute epe luzera balio; eta epe laburrera ere, ozta-ozta. Ondare ederra gero-ko gizaldientzat, arraioa!

Eta zer esan merketasunari buruz? Espainiako estatuan zentral nuklearrak elektrizitate-sarera konektatu zirenetik, argindarraren fakturari zerga berezi bat gehitu zitzaion, ekoizleentzako laguntza moduan. Hura oraindik ere ordaintzen dugu "zerbitzuak eta bestelako kontzeptuak" eufemismo polit horren barruan.

Alemaniko agintariek energia nuklearra behingoz baztertzea erabaki berri dute. Hedatuko ahal da munduko txoko eta bazter guztietara ereduazko irizpide hori! Hala bedi.

Zorionak Lagatzu!

Ekinaren 25ean Zamudion egon ginanok badakigu ha zergaitik dindan. Goizean goiz hasi eta goizaldera arte bizitako giroa ez dot inon sekula ikusi... Lehenengo orduan, spinninga Txirrin-bike taldeagaz. Batzuek halan pentsau genduan: zein zorori bururatuko jakon halako ezer egitea? Eta hara non txanda bi egon behar izan ziran. Ostean, ume pilo bat izan ziran kartoi bandan, instrumentu eta guzti. Aitagarria da eskolaren eta familien parte-hartzea. Azokan be giro ederra egon zan, euskal produktuak eta hamaiketako goxoa. Eta euskal produktuen artean berezia izango dan Baserri Antzokia. Kaleji-

ran, txistulariak, trikitilariak, dantzariak, bertsolariak... zer gehiago eskatu leiteke?

Bazkarian, 500 personatik gora batu ginan; 600etik hurbil esango neuke nik. Bazkaldu ostean, taldeak zein alkarteak izan ginan protagonista eszenatokian. Espero baino askoz jente gehiago animau zan kantetera, eta horrek gehiago berotu eban giroa. Ezarriak berotuta, hankak be berotu behar. Erromeria baino hoberik ez dago horretarako, eta banango lehiaketa eta guzti egin zan. Umeek, gazteek eta ez hain gazteek altzau eben hanka, zeinek baino zeinek gorago, trikitilariet atzamarretatik sua urten arte. Egun ederra, baina



IXONE ZUBIETA
(Tximintx Derioko euskera alkartearen kidea)

ez bakarrik antolatutako programagaitik, baizen jenteak erakutsi eban gogoagaitik eta alkarlanagaitik be bai. Enbidia sano apur bategaz bada be, zorionak benetan!

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr

NEKRA-HUTILEN ELKAPARRINDUGIA

Astearte - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Bidea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

ama
taberna

le-zuola plaza, 9 - Bidea (Zamudio)
94 455 73 69

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Toton, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Kapitala, Lezama bortxatzeko prest

“Bilbotik hurbil, eta ondo baino hobeto komunikaturik”: errepideak, trena, korridorea, aireportua. Aspaldi dabilta Bilbo txukuntzen eta Ibaizabalen alde bietako enpresa “itsusiak eta zaharkituak” handik ateratzen. Eta, jakina, “non-bait kokatu behar dira horiek”.

Hartu mapa eta hasi lursailak margozen. Oraingoan, Kurutze eta Ugarte jarri dituzte kolore urdinez, industriguneak direla adierazteko; Lezamako alde bi hauek geroago bat egiteko asmoa dutela, ia Aretxalde osoa industrigune sailkatuz.

Kontraesan nabaria: alde batetik, krisia dela-eta garatu gabeko hainbat industrigune eta pabilioi, hutsik; eta, bestetik, lur berriak konkistatzeko kapitalaren

egarri aseezina, bihar-etzirako lursailak prest izateko.

Kapitalak (diruak) tresna ugari ditu eskura bere helburuak lortzeko; haietariko bat Udala da. Herri ordezkariak aukera paregabea dute herritarren iritziekin eta interesekin bat egiteko, eta ez kapitalak ezarritako bideari nahi eta nahi ez jarraitzeko.

Inor ez dago garapenaren aurka, baina neurgailua noren eskuetan dagoen ikusi behar da. Herritarren parte-hartzea zenbat eta zabalagoa eta prestatuagoa izan, erabakia hainbat egokiagoa izango da Lezamaren etorkizunerako, ziur asko. Azken batean, herria herritarrok egiten dugulako, eta herritarren esku izan beharko litzateke zein motatako Lezama eraiki nahi dugun.

Txoko honetatik, deia udal kideei: jokatu gardentasunez eta bermatu herritarren erabaki eskubidea. Lezamarrok badugu zeresanik geure herriaren etorkizunaz.

Jabi Agirre



Berbalagunak datorren ikasturteari dabilta begira

Berbalagunek amaiera eman diote ikasturteari. Atzera begira eta pozik azaldu dira, izan ere, urtean zehar hainbat ekimen antolatutako dituzte eta guztiak erabat arrakastatsuak izan dira. Mendi ibilaldiak, maskara tailerra, afariak, padel ikastaroa, bidaien aurkezpena, kultura-bisitaldiak, hitzaldiak... Era berean, Euskal Herriko gainontzeko berbalagun taldeekin batera hartu dute parte Mintza Egunean. Bestalde aukera paregabea eduki dute astean behin, bitan... elkartu eta kafea euskaraz hartzeko, paseoa euskaraz emateko... Orotara 100 txorieritarrek hartu dute parte aurten Berbalagun proiektuan. Datorren ikasturterako izena ematea iraillean zabalduko da. Hura 635 75 35 95 telefono zenbakian edo txorierri.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikoan egin daiteke. Aurreratu diguten bezala, 2011-2012 ikasturtea nobedadez beteta etorriko da.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

EGUNEKO MENUAK



ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehendakari Leizola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cole, 117
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO

Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Uretan aire zabalean murgiltzeko aukera

Derioztarrek dagoeneko aukera dute uretan aire zabalean murgiltzeko; izan ere, zabaldu egin dira herriko igerileku irekiak uda honetan. Azpiegitura Uribe parkean dago, eta igerileku bi atondo dituzte han: bata, gazte eta nagusientzat; eta bestea, txikientzat. Era berean, aisiarako berdegunea, harrera-lekua eta aldagelak ipini dituzte. Igerilekuak irailaren 9ra arte egongo dira zabalik.

Zikloturista

Irailaren 17an Zamudioko Zikloturista izango da. Goizeko 9:30ean tiketak eta kamisetak banatuko dira Bidekoetxe parkean, eta lasterketa 11:30ean aterako da. Eguerdiko 13:00etan ogitartekoak banatuko dira eta ostean, bazkaria egongo da. Bazkalostea orkestra batek girotuko du. Zikloturistaren izena emateko epea irailaren 16ra arte egongo da zabalik, eta hura kultura teknikarien bulegoan egin beharko da. Herrian erroldatuta dauden 18 urtetik beherako lagunek bi euro ordaindu beharko dute; eta 18 urtetik gorakoek, hiru euro. Erroldatu gabeek, berriz, bost euro ordaindu beharko dute. Txartel bi daude prezioaren barruan: kamisetari dagokiona, eta ogitartekoari eta edariei dagokiena.

Lezamako trenbide zaharra, garbiago

a: Patxi Diez de Ulzurrun

Uztailan, Txorierriko 20 bat lagun elkartu ziren Sondikan, Motosegaren Eguna ospatzeko. Ekimenaren helburua Lezamako trenbide zaharraren zati batean sastrakak kentzea izan zen. Lanabesak eskuan, ibilbidea egin zuten Sondikako tunelerraino eta han ibili ziren tunelaren sarrera garbitzen eta inguruko sasiak kentzen.

Lezamako trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko mugimendua duela urte bi sortu zen eta ibilbidea prestatzeko eskatzen dute, handik paseatu eta bizikletaz ibili ahal izateko. Adierazi dutenez, dagoeneko aurkeztu dute proiektua Txo-

rierriko Mankomunitatean, Bilboko Udaletan, Bizkaiko Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan, eta, guztiek interesgarria irizti dioten arren, oraindik ez da ezer egin. Motosegaren Egunaren bidez politikarien arreta deitu nahi izan dute. Esan dutenez, Vías Verdes Madrilgo Fundazioari aurkeztu diote proiektua, eta fundazio hori prest agertu da lanak ordaintzeko, lurrak euren eskura jartzen badira.

Bestalde, Sondikako tunela orain dela gutxi zeharkatu dute. Tunela 500 metro luze da eta, zatirik handiena oinez egin zuten arren, azken zatia igeri egin behar izan zuten, ur maila gero eta altuagoa baitzen. Datozen hilabeteetan ere beste ekimen batzuk egiteko asmoa du taldeak.



Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantxa kalea, 8 - 1.º esk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 695 70 33 12



hotela
jatetxea
aretxarte

Tecnologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio
TXP

Txorierriko elotbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

OSKARBI
fotografoak

JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net



a: Asier Olazar

Gaizka Peñafiel lezamarra grabazio-estudioan dabil buru-belarri. Izan ere, gazte hau bere lehenbiziko lana grabatzen ari da bakarlari moduan. Diskoa udazkenean kaleratuko da eta hamar abestik osatuko dute. "Neureak dira doinu eta letra guztiak. Auto-ekoizpena izango da. Ekoizpen orokorraz neu arduratuko naiz eta Asier Olazar izango dut laguntzaile. Ekoizpen musikaren ardura Asier Ercillak hartuko du". Diskoan esperientzia handiko musikariek hartuko dute parte, eta instrumentu hauek joko dituzte, besteak beste: bateria, baxua, gitarra akustikoa eta elektrikoa, biolina, metal hirukotea, pianoa eta trikitia. Ahots

nagusia Gaizkarena izango den arren, bizpahiru abeslariaren kolaborazioak ere izango dira.

Lezamarrak azaldu digunaren arabera, diskoa konturatu gabe etorri den proiektua da. "Aste Santuan gitarra hartu, eta egun batetik bestera azaleratu ziren abestiak. Bat-batekoa denez, musika eta hitzak ere naturalak dira, eta, hain zuzen ere, freskotasun hori islatu nahi dugu lanean. Album landua izango da, baina ez hamaika aldiz mastekatua". Diskoan hainbat musika estilo uztartuko ditu, hala nola rocka, popa eta folka, eta askotariko gaiak ere jorratuko ditu abestietan. Diskoaren ekoizpen prozesua www.gaizka-penafiel.com webgunearen bidez jarrai daiteke.

Euskal ezkontza, Sondikan

Gorantzaiak Sondikako dantza taldeak Euskal Jaia antolatu du irailaren 9tik 11ra bitarteko astebururako. Dantza taldeak saio berezia eskainiko du barikuan eta han elkarrekin hauek ere hartuko dute parte: Txuma Olagüe talde korala, Txuma Olagüe abesbatza, Pentagrama kultura taldea, eta Ipar Elaiak txistu taldea. Ekimena arratsaldeko 7,30ean izango da Goiri Plazan. Gaueko 12,30ean berbera egongo da Luhartz taldearekin. Zapatuan euskal ezkontza egingo da hirugarren aldiz eta parte-hartzaileek 1.880 urtearen inguruko ezkontza bat antzestuko dute. Segizioa arratsaldeko 7:30ean aterako da Goronda Beko bidetik, eta iluntzeko 9,30ean arreo eta ezkontza-hitzarmena aurkeztuko dira Goiri Plazan. Ostean, herri afaria egingo da Larrabarrena parkean. Erromeria ere egongo da Trikitileku eta Bizkaiko Gaiteroak taldeen eskutik, eta Akerbeltz taldeak berbera eskainiko du.



Hurrengo egunean, goizeko 11etan, gazta eta txakolina-ren dastatzea egongo da Goiri plazan. Umeentzako herri kirolak ere antolatu dituzte egun horretarako.


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


Inaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31
**Magalarte
txakolina**
ARTEKARALETTA HONDA ETA NOTIARAKA
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen
75 cl. 10,75 % vol.
Lote 1-25

Santa Kurtze (Sondika)

Irailaren 14an, eguaztenean

11:00: Kalejira, Trikitixa Xabierrekin.

12:30: Meza eta aurrekua.

18:30: Umeentzako diskoteka.

Irailaren 16an, barikuan

24:00: Kontzertua, Groovies taldearekin.

01:30: Dantzaldia, Izargi taldearekin.

Irailaren 17an, zapatuan

10:30: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari taldearekin.

10:30: Marrazki eta Pintura Lehiaketa, umeentzat.

10:30: Umeentzako jolas parkea.

17:30: Futbol partida: Ohore Maila.

20:00: Agusssto antzezlan, Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitiarekin.

24:00: Kontzertuak: Ke no Falte eta Akerbeltz.

Irailaren 18an, domekan

10:30: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari taldearekin.

10:30: Umeentzako jolas parkea.

18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

Auzoak ere jaietan

Abuztuan eta irailean jaiak izango dira Txorierriko auzoetan. Hona hemen aurrerapena



Erromes Eguna (Larrakoetxe, Loiu)

Abuztuaren 14a, barikua

20:00: Lore eskaintza, Aitor Irazolari.

20:00: Saiheski erreka.

21:00: Diskofesta.

00:00: Irteera, Begoñara.

San Migel (Zamudio)

Irailaren 29an, eguna

12:00: Meza. Ostein, kopaua.

Larrondo (Loiu)

Irailaren 2a, barikua

18:00: Txupinazoa eta ikurrina jasotzea.

18:30 "Elotxelerrri" IV. Torneo: Sondika vs. Derio.

19:30: Umeentzako pelikula.

21:30: Tortilla Txapelketa.

23:30: Berbena, Badajaun taldearekin.

Irailaren 3a, zapatua

14:30: Herri bazkaria. Ostein, Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

19:00: Animalien erakustaldia, Gorritoren eskutik.

22:00: Mozorroak, txikientzat.

22:30: Mozorroak, nagusientzat.

24:00: Erromeria, Laiotz taldearekin.

Irailaren 4a, domeka

11:30: Meza eta ohorezko aurrekua, hildakoen omenez.

13:00: Omenaldia eta kopaua, nagusientzat.

14:00: XXII. Piper Txapelketa.

14:00: Paella Txapelketa.

18:00: Apar jaia.

18:30: "Elotxelerrri" IV. Torneo: Loiu vs. finalurrekoaren irabazlea.

22:00: Jaien amaiera.

On egin kafetegia

Hamburgerak - otartekoak - sartenekoak
plater konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz.

etxera eramateko zerbitzua

Aretxalde baxoa, 48-86ha
48196 Lezama **94 455 63 94**

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

NARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR

ARTISAU-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
tristorra, solomoiak...

Plater aurrekoiztatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

San Bartolomé (Zamudio)

Abuztuaren 23an, martitzenean

17:00: Bolandera nagusia.

17:00: Mus txapelketa.

20:30: Txitxi-burruntzia eta ardoa dastatzea. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.

Abuztuaren 24an, eguaztenean

Bakailaoa pil-pilean Txapelketa.

12:30: Meza, ermitan. Ostein, omenaldikopaua auzoko edadekoentzat, Bertokok girotua.

13:30: Bakailaoa aurkeztea.

19:00: Idi-probak. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.

01:00: Txokolatada eta erromeria.

Abuztuaren 25ean, eguenean

12:30: Meza, ermitan.

13:30: Umeentzako jolasak, maskarak eta sokatira: emakumeak vs. gizonak. Bertokok alaitua.

20:00: Tortilla Txapelketa. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.

00:30: Mozorroak.

01:30: Txokolatada, erromeria eta jaien amaiera.



Sandoni (Zamudio)

Irailaren 2an, barikuan

Puzgarriak, umeentzat.

11:00: Txupinazoa.

11:20: Meza. Ostein, omenaldia edadekoei.

16:30: Mus Txapelketa.

20:00: Txitxi-burruntzia.

22:00: Dantzaldia, Laja bigarrena taldearekin.

Irailaren 3an, zapatuan

12:00: Meza.

13:00: Hiru bat dantza taldearen emanaldia.

20:00: Idi probak.

21:30: Txitxi-burruntzia. Ostein, dantzaldia Laja bigarrena taldearekin.

Txorierrik utzi egin du Euskal Herriko Liga

Komunikatu baten bitartez jakinarazi duten moduan, Txorierri Elkartasuna Zamudioko herri kirol taldeak Harizulatzailleen Euskal Herriko Liga uztea erabaki du, "urteetan jasotzen ari garen erasoagatik". Era berean, taldeak ez du parte hartuko Harizulatzailleen Elkartek antolatzen dituen ekimenetan. Azaldu dutenaren arabera, zigorrak ipintzen dituen erakundeak puntuak kendu dizkie sailkapen orokorrean, taldekide batek izandako jarrera ez egokiari erantzuna emateko. "Baina uste dugu erabakia bidegabea dela eta ez datorrela bat errealitatearekin. Gurea gaur egun dagoen talderik iraunkorrena eta prestatuena da, eta Liga hirugarren aldiz irabazteko aukera handia badugu ere, hura behin betiko uztea erabaki dugu. Datozen urteetan ere ez dugu bertan parte hartuko". Hala ere, ez dute taldea desegiteko asmorik, eta aipatu dute herri kirol arloko beste modalitateetan arituko direla. "Txapela ahal dugun guztietan jantziko dugu".



BAR BIDE-BI
Goizeko 5etatik
aurrera zabalik
Zamudio
Aukeratu zurea!
Gosari bereziak
Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

KIM70
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaithezu 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

BIDE-GORRI
CAFE-BAR
Era askotako pintxoak • Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel. 94 452 26 75

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA
Elengabeko ordufegia

LEJARRENE JATETXEA
Garaitetza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Gazteen Eguna

Larrabetzun, Gazteen Eguna egingo da uztaillaren azken zapatuan, Hori Bai gaztetxeak antolaturik. Aurten goa 27garrena da eta hainbat ekin-tza prestatu dituzte egun horretarako: herri bazkaria, antzerkia eta kontzertuak, besteak beste. Egunekeo egitarauari eguerdian emango zaio hasiera. Txistulariak eta trikitilariak kalejiran irtengo dira eta arrastiko 2,30etan herri bazkaria izango da. Txartelak horibaigaztetxea@gmail.com helbide elektronikoan eskura daitezke, bertara mezu bat bidaliz. Bazkalostean, antzerkia egongo da, eta arrastiko 6,30etan, gaztetxeen eta gazte asanbladen arteko olinpiadak. Ondoren, Elektrotxaranga hartuko du txanda, eta gaueko 10etan, Mani+Festa+Akzioa ekimena egingo da. Kontzertuak gauerdian hasiko dira plazan. Eszenatoki gainean talde hauek ikusteko aukera egongo da: We Are Standard, Gose eta Itziarren Semeak. Horrezaz gainera, gaztetxean DJak izango dira gau osoan.



Mende bateko argazkiak



Jesus Sustatxa eta Luis Gómez loiuztarrek herriko historia batu dute hainbat urtez, etxerik etxe herritarrengana joz eta argazki zaharrak berreskuratuz. Bostehun argazki batu dituzte guztira, eta irudion bidez Loiuko historiaren zati bat osatu. Argazkiok herriko jaietan jarri zituzten ikusgai. Herritarrek Zabalotzeko eskola zaharreko atetik sartu, eta iraganeko mila oroitzapen etorri zitzaizkien akordura. Izan ere, Loiuko azken mendeko historia-ko protagonistak izan zituzten bertan begira erakusketa aretoan atondutako tauletan.

Pertsonaia xelebreak, herritik kanpo ere ospetsuak direnak, etxeko andreak, eskolako umeak, kirolariak, gudariak, baserritarak, bertsolariak, *El bueno, el feo y el malo* filmean estra ibili zen soldadua... guztiek izan dute euren lekua "Loiuko oroitzapenak" argazki erakusketan. Eta haiekin batera, herritarrentzat garrantzitsuak izan diren lekuak eta zerbitzuak: Lujua konpainiaren antzinako autobusa, Amor Misericordioso ikastetxearen eraistea, Giltza erreka, eta Asua ibaia, banaka batzuk aipatzearren. Era berean, gazteegi

zirela joan ziren loiutarren argazkiak ere egon ziren erakusketan.

Album digitalak

Argazkiak ez ezik, hainbat dokumentu interesgarri ere topatu dituzte Sustatxa eta Gómezek euren ibilaldi historikoan: gerran kontzentrazio-esparru batean sartu zuten herritar baten kontrol-txartela, 1941. urteko zerga, 5 eta 100 pezetako billeteak, eta 1939. urtean Bizkaitik ibili ahal izateko baimena, esate baterako. Dokumentuok ere ipini zituzten ikusgai erakusketan. "Loiuko oroitzapenak" lana osatzen duten argazkietariko batzuk digitalizatu, eta hiru album eman dituzte argitara. Album bakoitza 40 euroren truke eskura daiteke. Horrezaz gainera, herriak eta herritarrek bizi izandako momenturik adierazgarrienak batu dituzte dokumental batean, eta kopiak proiektziora joan zirenen artean banatu zituzten.

Jesusen eta Luisen lana ez da amaitu. Azaldu digutenaren arabera, argazkiak biltzen eta grabazioak egiten jarraituko dute, herriaren eta herritarren bilakaeraren dokumentu grafikoak ondorengoei uzteko.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezio
sabaiak eta
apalategiak
Sabai
erregistragarriak
Isolamendu
termiko eta
akustikoa

Aiertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientoerderio.com



Eguraldi ona, negua izateko!

Uda ez da oso beroa izaten Euskal Herrian, ezta eguzkitsua ere. Baina uztai-lean eduki dugun eguraldia ohikoagoa da neguko edo udazkeneko hiletan. Zerura begira eta hodeiak baino ez ditugu ikusi, euria, eta tenperatura ere ez da batere atsegina izan. Eguraldi ona izango litzateke, neguan izanez gero; hala ere, uda da...

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

XURREGOITI
JATETXEA
Laurietako etorbidea, 27
48160 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com

elekma
URRIATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TONKAK

Leherengo markak • Preziarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tecniari etorbidea, 25-3 N • 48160 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urtebe 7, behea
48160 OERRO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...

IGOGAILUAK

ARLAN

ASCENSORES

902 54 08 54 www.arlan.biz

*t: Itxaso Marina / a: Jon Olabarriaga***Trikizio taldearekin batera ikusi zaitugu eszenatoki gainean, zergatik?**

Uda honetan haiekin nabil abeslari. Xabik, taldearen abeslariak, eztarriko gai-xotasuna du eta ezin du denboraldi batean abestu. Beraz, ni nabil bera ordezkatzeko.

Zelan moldatzen zara?

Egia esan, ikaragarri nabil disfrutatzen. Oso musikari onak izateaz gainera, oso jende jatorra ere badelako, bai taldekideak, bai teknikariak.

Uda korapilatsua izango da? Izan ere, kontzertuak emango dituzu Trikizio taldearekin, eta ez dakigu EtxErekin ere aterako zaren biran...

Ez horrenbeste. Uda hasi baino lehen banekien bakarlari bezala ez nuela ia kontzerturik emango. Kontzertu akustikoren bat egitea gustatuko litzaidake, behar bada, baina ez dut ezer zehatzik itxita. Ondorioz, Trikizio taldearekin ibiltzeko aukera aprobeztatu nahi dut, eta horretan nabil buru-belarri.

“Denboraren poderioz ikasi dudana islatu dut abestietan”

Zuri buruz arituko gara orain. Lehendabiziko diskoa, Zatoz nirekin, zeuk ekoiztu zenuen 2005. urtean. Bidea eginez 2007. urtean eman zen argitara; eta Heldu eskutik, 2009. urtean...

Bilakaera egon da disko batetik bestera, edo behintzat hori egiten saiatu naiz. Ahalegina egin dut abesti landuagoak sortzen, eta denboraren poderioz ikasi dudana islatu nahi izan dut abestietan. Hurrengo diskorik badago, ziur han ere aldaketaren bat egongo dela.

Eta zein da zuk, musikari bezala, urte hauetan izan duzun bilakaera?

Ez naiz momentu batean ere geldirik egoten. Musika munduan 15 urte nituela hasi nintzen, eta gehienek bakarlari bezala ezagutzen banaute ere, aurretik Nabari taldean aritu nintzen baxu-jotzaile. Bestalde, gaur egun Mafia taldean ere banabil, eta bertan ere baxua jotzen dut. Momentu honetan Trikizio taldearekin nabil abes-

“Barrutik ateratako abestiak dira nireak”

ETXE | bakarlaria

Iñaki Etxezarraga “EtxE” bakarlariaren ahotzaz gozatzeko aukera izan genuen Lagatzu Egunean. Berrizkoa Trikizio taldearekin aritu zen Zamudioko euskara elkartearen urteurrenean, eta erromeria zoragarria eskaini ziguten. EtxErekin izan ginen solasean.



Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
 Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
 Telefonoa-Fax: 94 454 51 52
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA



94 556 72 25

ARALAR, 4
DERIO

ten, eta bakarlarie-proiektua apur bat gel-dirik utzi dut... Nolanahi ere, beti nabil saltsaren batean edo bestean sartuta.

Zure musika entzun dugu; adituek lerroak idatzi dituzte zure lanari buruz... Baina zelan definituko zenuke zuk zeuk?

Ez dakit inoiz galdera horri zelan erantzun. Momentuan ateratzen zaidana islatzen dut nire abestietan, eta ez dakit hura zelan definitu. Beti esan dut barrutik ateratako kantuak direla.

Trikizio taldearekin buru-belarri zabiltzala aipatu duzu lehen; etorkizuneko asmorik baduzu EtxErentzat?

Trikiziorekin udako kontzertuak ematen ditudan bitartean, banabil nire kantu

"Urte amaieran Espainiara bakarlarie bezala ateratzeko asmoa dut"

berriak konposatzen. Gainera, dena ondo irteten bada, urte amaieran Espainiara bakarlarie bezala ateratzeko asmoa dut.

Musikaria izateaz gainera, zaletasun handia ere baduzu txirrindularitzarako.

Zale amorratua naiz. Zaletasuna familiatik datorkit. Gazteagoa nintzela le-

hiatu ere egin nuen, eta gaur egun ere bizikletaz ibiltzen naiz. Joan den urtean omenaldia egin nahi izan nien euskal txirrindulariei eta Pirinioetara joaten diren zaleei; horregatik konposatu nuen *Mal-dan gora* abestia Euskaltel-Euskadi talderako.

Eta abenturazalea ere bai, El Conquistador saioaren azken edizioan ikusi zaitugu-eta.

Oso esperientzia polita eta gogorra izan da, baina berriz errepikatzeko modukoa. Handik bueltatu nintzenean, pentsatu nuen Maiderrekin abesti bat egitea. Hura saioaren finalean jo genuen eta jendeari gustatu zitzaion. Gogoia dut estudioan sartu eta abestia grabatzeko.

Gorka García Llamosas
608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com



Txakur eta katuentzako pentsua
Prezio onean
Etxera eramaten dizugu

pro audio
SONIDUEN ADITUAK

Txorierri et., 15
48150 Sondika Bizkaia
944 533 375
www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nabigazioa
- telefonía
- segurtasuna
- lehioaketa
- personalizatzea

harategia - urdalategia
MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA



Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

ATARRABI



Erremerterri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Consulting
Sondika S.L.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

Mixtina, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Centro Dental
Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Cel. nº 48000759
Kepa Herguedas Manso
Cel. nº 48000757
María Conde Bilbao
Cel. nº 48000983

Mixtina 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 839 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.cdtxorierri.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GIDOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 434 07 06
Fax 94 434 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48180 DERIO

Tamara
Kopatu-denda Osagarriak



Herriko plaza, 2
Derio
94 656 67 27
Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Leioa
94 463 06 32
tamaraeleoa@yahoo.es

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
agita
edaria

9€

Bestorene 5, Beheko 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

“Euskadin oso zaila da futbolari erabat profesionala izatea”

t: Gaizka Eguskiza

Zelan bizi izan duzu igoera?

Oso pozik. Guretzat izugarritzko urtea izan da, Amorebieta inoiz ez delako Bigarren B Mailara igo.

Zeintzuk izan dira gakoak?

Batzuetan, futboleant ez da nahikoa talde ona izatea, zortea ere hartu behar izaten da kontuan. Iaz, gertu ibili ginen, baina azkenean ez genuen lortu. Aurten, helburu berdina genuen, igoera, eta lortu egin dugu.

Zelan bizi izan du Zornotza herriak?

Bigarren B Mailan eta Hirugarren Mailan jende gutxi joaten da futbola ikustera. Askoz jota, 1.000 lagun hurbiltzen dira. Kanporaketan, 2.000 etorri ziren Zornotzara, gu ikustera. Herriak bat egin du gurekin. Oso pozgarria izan da.

Zelan egin zenioten aurre Manacorren aurkako kanporaketari?

Horrelako kanporaketetan ez duzu jakiten zer topatuko duzun: ligan zehar hainbat talderen kontra aritzen zara, baina kanporaketetan beste ligetako talde baten kontra jokatu behar duzu. Guri Manacor taldea egokitu zitzaigun, eta ondo atera zen dena. Gola ere sartu nuen. Askotan esaten da uharteetako taldeek ondo jokatzen dutela, baina Manacorrek ez zuen joko ikusgarriarik egin.

Zeintzuk dira datorren urterako helburuak?

Badakigu urte gogorra izango dena. Ligan, oso talde boteretsuak daude: Zamora, Palentzia, Alavés, Salamanca, Eibar.... Batzuek probintzietako hiriburuak

ARMAN IMAZ | futbolaria

Aitak futboleant jokatzen zuen, eta anaiak ere futbolariak ditu. Ez da harrizkoa, beraz, Arman Imaz derioztarra futbolaria izatea. Aurten igoera lortu du bere taldearekin, Amorebietarekin, eta hurrengo denboraldian Bigarren B Mailan jokatuko du.

ordezkatzan dituzte, eta lehia sutua izango da. Euskadin ez da oso ohikoa, baina hemendik kanpo futbolari gehienak profesionalak dira Bigarren B Mailan. Beraz, oso erronka polita izango da taldearentzat, eta gogor egingo dugu lan, mailari eusteko.

Bigarren B Mailan baduzu eskarmentua, Barakaldo taldean, ezta?

Duela urte bi jokatu nuen han. Sestao taldean ere jokatu ahal izan nuen, baina azkenean Barakaldora joan nintzen, garai hartan Bizkaiko bigarren taldea zelako. Talde ona genuen, baina Bigarren B Maila oso zaila da, eta Barakaldoko jendeak, beharbada, gehiegi espero zuen. Hasiera batean, titular jokatu nuen, baina denbo-





Bizkaiko Urtxintza Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTAROAK
Tel: 94 432 04 45



Matrikulazioa Irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

- Astialdiko Begiralea • Astialdiko Zuzendaria • Jendarte Kultur Dinamizatzailea • Hezkidetzan Aditua •
- Kulturarteko Hezkuntzan Aditua •
- Heziketa Premia Berezia Astialdian •
- Guraso Eskola • IKASTARO LABURRAK

www.urtxintzaeskola.org

"Erronka polita izango da Bigarren B Mailan jokatzea, eta gogor egingo dugu lan, mailari eusteko"

"Heldua naizenetik, Barakaldokoa izan zen nire urterik txarrena"



raldi erdian arazoak sortu ziren, entrena-tzailea aldatu zuten, eta jokatzeari utzi nion. Nire ustez, oso garrantzitsua da jokatzea eta horretaz gozatzea, eta horregatik, urtea bukatu zenean, beste talde batera joatea erabaki nuen. Barakaldokoe-
ek nik jarraitzea nahi zuten, baina nik nahiago izan nuen Hirugarren Mailako Amorebietara etorri. Heldua naizenetik, Barakaldokoa izan zen nire urterik txarre-na.

Zamudion ere ibili zinen...

Bai, Danok Bat taldean jokatu nuen gazte mailan, eta gero, Zamudiora. Garai hartan anaia biak zebiltzan jokatzeko Zamudion, eta kluba primeran ezagutzen nuen. Denboraldi politak egin genituen

bertan: lehenengo urtean, Hirugarren Mailara igo ginen, eta hurrengoan Bigarren B Mailara igotzeko zorian ibili ginen.

Amorebietak Zamudioren kontra jokatu du aurten, Ligan. Zer falta zaio Zamudiori igoera lortzeko?

Batez ere, dirua. Dirurik baduzu, jokalaria hobeak fitxatzeko aukera izango duzu; bestela, zaila da.

Gustatuko litzaizuke futbolari profesiona- la izatea?

Bai, luxua izango litzateke, baina badakit oso zaila dena erabat profesiona-
la izatea; batez ere, Euskadin. Ia ezinezkoa. Ametsa izango litzateke, baita Athletice-
n jokatzeko ere, edozein jokalaria bizkaita-
rrentzat bezala.

Ibilbidea

–**Jaioterria:** 1987, Derion.

–**Taldeak:** Danok Bat (04-06), Zamudio (06-08), Barakaldo (08-09), Amorebieta (09-?).

–**Postua:** Ezker hegaleko erdilaria.

–**Familia:** Aitak Iraultza, Derio eta Zamudio taldeetan jokatu zuen; Ager anaiak Zamudio taldean jokatzeko du, Hirugarren Mailan; besteak, Unax, Gatikan, Ohorezko Mailan.

–**Ikasketak:** Elektrizitatea, Erdi Mailako Heziketa Zikloa.

Prest egongo zinateke kanpora joateko ere?

Auskalo! Aukeraren bat egon da kanpora joateko, baina oso gustura nabil etxean. Gainera, kanpoan ez dizute ezer ziurtatzen. Badituzte lagun futbolariak; batzuk Lorca, Polideportivo Ejido eta Salamanca bezalako taldeetan ibili dira eta arazoak izan dituzte kobratzeko. Kanpoan etxean baino askoz larriagoa da egoera: bakarrik zaude, alokairua ordaindu behar da.... Euskal Herriko taldeek gutxiago ordaintzen dute, baina kanpokoak baino serioagoak dira, hau da, sinatzen dena ordaintzen dute. Euskadin ez dago problemarik, baina kanpoan kontu handiz ibili behar da.

**MODA INFANTIL**
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26
48160 DERIO
Bizkaia


Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

**volconsa**
DIVISIÓN
ISOLAMENDU AKUSTIKOIA
Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENAREN eskutik)
tel. 94 644 00 19 faxa. 94 406 49 13
aislamientobitbai@volconsa.es www.volconsa.es
Solube, 1 - DERIO

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaituz Trippyra, Deriora
Behoko Kalea Bajoa
DERIO

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kirmasajek
Tasari etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Hiru dimentsioko Aconcagua

Jon Arisketa eta Jokin Goioaga Politeknika Ikastegia Txorierriko irakasleek inork baino gorago eraman dute hiru dimentsioko teknologia: Aconcaguara (6.979m), hain zuzen ere. Argentinako mendian zehar Juanito Oiarzabal mendizalearen eskutik ibili dira, eta goi-mendiko espedizio bat hiru dimentsioan grabatu den lehenengo aldia izan da.



t: Itxaso Marina / a: Politeknika

TKNIKA Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa da, eta Jon haren partaide da. Zentroak hainbat proiektu berezi jarri ditu abian. Haien tartean "Bereizmen handiko telebista eta hiru dimentsiokoa" dago. Proiektuak hiru dimentsioko (3D) teknologia ondo ezagutzea du helburu, materiala osatu eta beste irakasle batzuek hori erabil dezaten. Aconcaguara espedizioa 3Dan grabatzeko ideia handik sortu zen. "Mendia oso leku aproposa da halako proiektuak egiteko, oso irudi ikusgarriak hartzen direlako".

Ikastegiak baimena eman ostean

Panasonic enpresarekin jarri ziren harremanetan. "3Dko materiala oso garestia da eta enpresa horrek behar genituen kamerak-eta utzi zizkigun". Ondoren, Juanito Oiarzabalen atera jo zuten. "Juanito-ekin egin nahi genuen hainbat arrazoi-rengatik: alde batetik, bagenekielako espedizioak gogoz antolatzen zituela; eta bestetik, mendiaren munduan mitoa delako. Gainera, kameren aurrean lan egiteko ohitura du eta oso mediatikoa da. Oso erreza izan da berarekin lan egitea".

Hamaika lagunek osatutako espedizioa urtarilean abiatu zen Aconcaguara. Hango girora moldatu eta 15 egun ingu-

"Juanito oso profesionala izan da gurekin eta beti azaldu da laguntzeko prest"

ru eman zituzten Amerikako mendirik altuenean. Jon eta Jokin mendizaleak dira, baina hala ere ez zen erreza izan elementuei kamera eskuan zutela aurre egitea. "Hotz handia zegoen eta egun batean minus 25 gradutan egon ginen. Altuerak guregan eragindako nekea ere oso handia izan zen. Eta grabazioa egoerak sortu ahala egin behar izan genuen: espedizioak lagunak mugitzen baziren, guk ere mugitu behar genuen, haiek aurreratu behar genituen, berritro atzera itzuli... Egia esan, etxeko grabazioa izan da, baina oso meritu handia duena, baliabide gutxiarekin eta tripode barik egin dugulako. Izan ere, 3Dko teknologiarekin zera gertatzen da, planoak txarto hartzen badira ez dutela ezertarako balio". Juanitoren laguntza eta aholkuak ere ezinbestekoak izan dira. "Oso ondo portatu da gurekin, oso profesionala izan da eta beti azaldu da laguntzeko prest". Mendizaleak oso jenio bizia du, "baina oso umore ona ere bai", azpimarratu dute Politeknikako irakasleek. Hori dela-eta, anekdota ede-


HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Hurrikoetxe, 7
Tlfnoa: 94 455 89 41
LARRABETZU


Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97

gaitako errekek
egiten doguz



rrak dituzte kontatzeko. "Bazkaria berak prestatzen zigun: paella, egun baterako; patatak Errioxako erara, besterako... Oso giro ona sortu zen guztion artean".

Hezkuntza-materiala

Pozik daude irakasleak eta Politeknikako gainontzeko langileak egindako lanarekin. Irakasle ausartek ordu eta erdiko muntaia egin dute, eta 3Den gaineko jardunaldi batzuetan, Bilboko Alhondigan, aurkeztu dute orain dela gutxi. "Ikusgarria da Aconcagua mendia 3Dan ikus-tea: amildegiak, haitzak...". Muntaia egitekorakoan arreta handiz aukeratu behar izan dituzte grabatutako planoak, eta lanean orduak eta orduak eman dituzte ikasle birekin batera. Postprodukzio-lanetan asko ikasi dutela esan digute. "Plano onak aukeratzeaz gainera, istorioari zentzua ere eman behar zaiolako". Dokumentala hezkuntza-materialtzat erabiliko da. Azaldu digutenaren arabera, Politeknikan



3Dko telebistaren gaineko ikasgaia eman-go dute eta proiektuak irakasleek teknologia hori zuzenean ezagutzea eduki du helburuen artean. "Gauza bat delako teoria azaltzea eta beste bat zeri buruz ari zaren jakitea". Horren haritik aipatu digute Nafarroako enpresa bat izan ezik, Euskal Herrian ez dagoela 3Daren munduan gailentzen den enpresarik, "eta guk teknologia honen inguruko heziketa eskaintzen duen lehenengo ikastetxe bihurtu nahi dugu".

"Teknologia honen inguruko heziketa eskaintzen duen lehenengo ikastetxe bihurtu nahi dugu"



Motorrak orroka ibili dira gure artean

Ekainean, Sondika Urban Circuit egin zen lehenengo aldiz. Ekimen hori Sondika Motor elkarteak antolatu zuen San Joan jaietako egitarauaren barruan, eta erabat arrakastatsua izan zen. Motorrak indarrez egin zuten orro Zangroiz industrialdean atondutako zirkuituan.

t: Itxaso Marina / a: Sondika Motor

Eguzki galdatan, gidarien trebetasunak eta ibilgailuen motorrek egindako zaratak berotu zituzten –are gehiago berotu, bero kiskalgarria egiten zuelako– zirkuitura etorri ziren lagunak. Antolatzaileen arabera, 1.000 zale baino gehiago batu ziren han, bai Bizkaitik bai inguruko herrialdeetatik etorriak. Guztira, 33 gidarik hartu zuten parte ekimenean. Gidariok lehen mailako probetan dabiltzan profesionalak izan ziren eta Estatuko hainbat txokotatik heldu ziren Sondikara.

Pistan kategoria hauek egon ziren ikusgai: formulako automobilak, rallyko auto klasikoak, moto klasikoak, car-crosak eta supermotardak. Gainera, supermotard kategoriako proba puntuagarria izan zen Euskadiko Txapelketarako. Lasterketa Abel Urizarbarrenak irabazi zuen, eta oso anekdota bitxia gertatu zen. Abel lurrera erori zen lehen txandako lehenengo biran, eta gainerako gidariek alde handia atera zioten. Bat-batean, ez dakigu zergatik, pilotu batek amaitutzat jo zuen txanda, nahiz eta artean hiru bira falta ziren txanda amaitzeko. Beste gidariak ere gelditu egin ziren, baina Abelek jarraitu egin zuen lasterka, ez zuelako bandera koadroduna ikusi. Gidariak txanda amaituta ez zegoela konturatu orduko, Abelek oso alde handia atera zien eta ezin izan zuten hura harrapatu. Bigarren txandan, bigarren lotu zen, baina txanda bietan egindako denboraren batez bestekoa egunik, txapela eraman zuen. Loiuko pilotu



batek, Borjak, bigarren postua eskuratu zuen; eta hirugarrena, Luismik.

Moto klasikoaren kategoriari dagokionez, 40 urte inguruko ibilgailuak ikusi ziren zirkuituan, GP txapelketetan ibiliak, eta motoak euren jabeek gidatu zituzten kasu gehienetan. Irabazlea Bruno izan zen, Ducati 450 bat gidatu zuena; Pedro Mujika bigarren heldu zen (Derby 250 2t); eta Faustino Hernández, hirugarren (Ossa 250 GP). Lasterketan, neska batek ere hartu zuen parte, Ducati batekin.

Bestalde, formulako automobil bik erakustaldia egin zuten: 70eko hamarkadako Formula Ford bat, eta Alfa Romeo motorra zuen Formula 3 bat. Rally auto klasikoaren kategoriara aparteko automo-

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com



Bost kategoria egon ziren: formulako automobilak, rallyko auto klasikoak, moto klasikoak, car-crossak eta supermotardak

bilak eraman ziren: Renault Alpine bat, R5 Turbo 2 bat, Ford MK2 bat, eta 1979. urteko EX WRC 131 abarth bat. Azkenik, car-crossek egindako irristatzeek gozatzeko aukera eman zieten ikusleei. Kategoria honetako pilotuen artean, Josu Mentxaka derioztarra izan zen. "Kalitatea eta espektakulua eskaini nahi genizkien ikusleei; pilotu onak ekarri, aparteko automobilak gidatzen dituztenak. Pozik gaude lortutako emaitzarekin eta zaleek emandako

erantzunarekin. Proba gainditu egin dugula uste dugu", aipatu digu Unai Atxa antolatzaileetarikoa batek.

Zirkuituak, kilometro bat baino zerbait luzexeagoa, Zangroiz industrialdean prestatu zuten. Gidariak pozik azaldu ziren ibilbidearekin, eta oso dibertigarria eta egokia zela adierazi zuten. Izan ere, zirkuituak baditu berezitasun bi. "Estatu Batuetako Laguna Seca zir-

Ekimenean, 33 gidarik hartu zuten parte, eta 1.000 zale baino gehiago etorri ziren

Zirkuituak zailtasun handiko gune bi izan zituen: sacakozkor bihurgunea eta ahateena

Prestatze-lanetan 50 lagun inguru ibili ziren; herriko gazte asko, tartean



kuituan oso ospetsua den bihurgune bat badago, aldapan behera dagoen bihurgune bikoitza delako, eta hari sacacorchos edo "kortxo torloju" esaten diote. Gure zirkuituan badugu oso antzekoa den beste bihurgune bat, eta hari "sacakozkor" deitu diogu. Beste alde batetik, zirkuituaren zailtasun handiko beste gune bat aha-teen bihurgunea da".

Hitzordu finkoak

Sondika Urban Circuit ekimena bertako Udalak babestu du, eta hainbat enpresaren laguntza izan du. Baina, batez ere, herriko gazteek egindako ahalegina azpimarratu dute antolatzaileek. "Prestatze-lanetan 50 lagun inguru ibili gara; gazte asko, tartean. San Joan jaiak izan arren, ahalegina egin eta dena eman dute guri laguntzeko, eta ekimena ondo irteteko". Sondika Motor elkarteak Sondika Moto ekimena antolatu zuen iazko azaroan. Goronda Beko kiroldegian balio ekonomiko eta historiko handiko 112 moto jarri ziren ikusgai eta, besteak beste, José Ángel Mendivil, Herri Torrontegi eta Efrén Vázquez pilotuek hartu zuten parte ekin-tzetan. Ekimen hura ere erabat arrakasta-tua izan zen, eta Sondika Urban Circuit haren harira egin da. "Urtean zehar herrian antolatzen diren beste ekitaldi batzuen aldean, motor munduaren inguruko eki-menak ezberdinak dira, eta oso ikusga-riak. Hala, hona etortzen dira bai mundu hau gustatzen zaienak eta bai zale amo-ratuak ez direnak ere. Errutinatik irteteko aukera ematen duelako".

Sondika Motor Elkarteak 2010ean sor-tu zen, helburu birekin: motor mundua dinamizatzea eta sozializatzea. "Gu ez gara herriko errepideetatik astakeriak egiten dabiltzan zoroak. Guri auto lasterketak gustatzen zaizkigu, motoak, abiadura... baina zirkuituetan eta leku egokietan egi-ten ditugu lasterketak, zuhurtziaz. Motor mundua zaletasuna eta kirola da guretzat, eta nahi dugu herritarrek bereiz ditzaten lehen aipatu ditugunak eta gure moduko-ak direnak".

Elkartekideek mahai inguruan esertze-ko asmoa dute, eta ekimen biak -Sondika Moto eta Sondika Urban Circuit- euren osotasunean aztertu. "Argi dugu gustatu-ko litzaigukeela biak hitzordu finko bihur-tzea motor munduaren egutegian. Dina-mika egonkorra har dezatela, eta inguruko zaleak gure artera etor daitezela".



Hemen heziketa lana da

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI S.COOP
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Heziketa Zentroa

Uztzagaz Itzia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

ERAZKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

Unibio Q
kalitate-kudeaketaren euskarri saria
lortzen duen LHko
Bizkaiko lehenengo ikastetxea

Gure taller eta laborategiak ezagutzera etorri
ATE IREKIEK JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazio mekanikoa *Goi maila* (2.000 ordu)
- Produzioaren programazioa *Goi maila* (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika *Goi maila* (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak *Goi maila* (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informatika sistemak *Goi maila* (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa *Goi maila* (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa



Jai egarria dogu!

Eta laster aseko dogu, andramariak eta emeteriak ospatzekoak diralako abuztuaren 12tik irailaren 1era arte Larrabetzun. Guztientzat pentsautako eta guztiek parte hartzeko moduko jai-egitaraua prestau da aurton be.

a: Lurdes Etxebarria

Motorrak berotzen hasteko, futbol zelaira joatea ideia ona dala erabagi dau jai batzordeak. Halan, abuztuaren 12rako Futbol 7 Txapelketaren kanporaketak antolatu dabez. Txapelketan parte hartu gura dabenek abuztuaren 1etik 12ra arte emon behar dabe izena igerilekuan. Finalurrekoak eta finala hurrengo egunean (zapatuan) jokatu dira. Egun horretarako "Kantuz kantu" herri afaria eta "Larrabetzubision" Kantu Txapelketea antolatu dira.

Txupinazoa domeka arrastian jaurtiko dabe. Baina lehenago, pala partiduak eta triatloia egingo dira. Triatloi proban izena emoteko epea abuztuaren 13ra arte egongo da zabalik, igerilekuan. Txistulariak kalejiran urtengo dabe Akarmari, Paskuala eta Matxinegaz, eta Dj Xaiborrek diskotxoua eskiniko dau. Erromeria Triki Ta Ke taldearen eskutik izango da. Abuztuaren 15ean (astelehenean), Andra

Mari Eguna ospatuko da, eta kalera lehengo eran jantzita urteteko proposamena egin deuse jai batzordeak herritarrei. Eta karrozak dotore-dotore apaintzeko be bai. Eguerdian, larrabetzuarrek prestatutako pintxo gozoak dastatzeko erea izango da, eta arrastian arrakasta handiagoa daben ekitaldietariko bi izango dira: Asto Lasterketea eta "Balkoitik balkoira" bertso saioa. Aurton, Gorka Ostolaza eta Jone Uria bertsolariek jardungo dabe bat-batean. Antzerkiak eta erromeriak amaiera emongo deuse zaindariaren egunari. Asto Lasterketan parte hartzeko, abuztuaren 14ra arte emon leiteke izena igerilekuan.

Bartolome

Martitzenean goiz altzau beharra dago. Izan be, mendi bizikleta martxea antolatu dabe goizerako. Lehenengo aldia da martxa hau egiten dala, guztiek hartu ahal izango dabe parte, ume, gazte nahiz zahar izan, baita ustelduek be.

Eguerdian, umeentzako bazkaria egingo da, eta txartelak txosnan jarriko dira salgai. Nagusiek Sukalkin Txapelketea egingo dabe. Besteak beste, mago baten emonaldia, jolasak eta erromeria izango dira arrastiko 4etatik aurrera.

Atsedean txikia hartu, eta abuztuaren 24an berriro ekingo deuse jaiei. San Bartolome ospatuko dabe egun horretan, eta egun osoan hainbat ekimen izango ditue: bizikleta igoera, Paella, Briska eta Ugelaxo-toka Txapelketak, eta erromeria, hain zuzen be. Emeteriek abuztuaren 30ean hartuko dabe txandea. Txupinazoa eguerdian botako dabe Goikoelexalden, eta handik aurrera, hiru egunean zehar, herritar guztientzako jai-ekitaldiak izango dira nagusi auzoan. Herri kirolak, Marmitako Txapelketea, erromeria... geldirik ez egoteko moduko ekitaldiak izango dira martitzenean. Hurrengo egunerako honek antolatu dira: orienting probea, bertso-saioa, Briska Txapelketea, idi-probak eta kontzertua. Irailaren 1ean, umeak izango dira protagonistak, ondo baino hobeto pasauko dabelako krosean eta mundu osoko jolasetan parte hartzen daben bitartean.

*Larrabetzubision
ekimena eta mendi
bizikleta martxea egingo
dira lehenengo aldiz*

Andramariak

Abuztuaren 12a, barikua.

17:30: Futbol 7 Txapelketea: kanporaketak.

Abuztuaren 13a, zapatua.

18:00: Futbol 7 Txapelketea: finalurrekoak eta finala.

21:00: "Kantuz kantu" herri afaria. "Larrabetzubision" Kantu Txapelketea.

Abuztuaren 14a, domeka

12:00: Euskal selekzinoko nesken arteko pala partiduak.

18:00: Triatloia.

20:00: Txupinazoa: txistulariek Akarmari, Paskuala eta Matxinegaz urten-go dabe Kukubiltxotik.

22:00: Diskotxoua, Xaiborregaz.

00:30: Erromeria, Triki Ta Ke taldeagaz.

Abuztuaren 15a, astelehena.

12:30: Txistulariak, Akarmari, Paskuala eta Matxin.



13:00: Herritarrek egindako pintxoak dastatzea.

13:00: Eskolako trikitilariak eta pandero-joileak, eta Gaztelumendi abesbatza.

19:00: Asto Lasterketea.

20:00: Bertsolariak balkoitik balkoira: Gorka Ostolaza eta Jone Uria.

22:00: Erromeria, Haitzama taldeagaz.

23:00: Kaleko antzerkia: Atsoak lana, Pikor taldearen eskutik.

00:00: Erromeria.

Abuztuaren 16a, martitzena.

10:30: Mendiko Bizikleten I. Martxea, ume, gazte, zahar, heldu eta ustelduei zuzendua.

12:00: Txistulariak, Akarmari, Paskuala eta Matxin.

12:30: Umeentzako jolasak, Kulki taldearen eskutik.

14:00: Umeentzako bazkaria.

14:30: Sukalki Txapelketea.

16:00: Tor magoa.

18:00: Goitibeherak. Ostein, txistularien, Akarmari, Paskuala eta Matxinen kalejirea plazaraino.

19:30: Kuadrillen arteko jokoak.

20:00: Erromeria, Gure Etxean.

22:30: Erromeria, Trikizio taldeagaz.

Abuztuaren 24a, eguaztena.

San Bartolome

13:00: Bizikleta igoerea.

14:30: Paella Txapelketea.

17:00: Briska Txapelketea.

18:00: Ugelaxo-toka Txapelketea.

19:00: Erromeria, Aldats taldeagaz.



Emeteriak (Goikoelexalde)

Abuztuaren 30a, martitzena

12:00: Txupinazoa, txistulariakaz, Akarmari, Paskuala eta Matxinegaz.

13:00: Herri kirolak, bertoko kirolariakaz.

14:00: Marmitako Txapelketea.

17:00: Mus Txapelketea.

19:00: Igoerea Barrenetxera.

22:30: Erromeria, Trikizio taldeagaz.

Abuztuaren 31, eguaztena

11:00: Orienting proba. Ea nor berandu galdul!

13:00: Bertsolariak: Miren Amuriza eta Sustrai Colina.

17:00: Briska Txapelketea.

19:00: Idi-probak.

21:00: Kontzertua.

Irailaren 1a, eguena

17:00: Umeentzako krosa eta "Zure esku" mundu osoko jolasak.

MARIA LUISA TABERNA



Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Arebale, 5 - behea | Tel.: 94 455 84 14 | Larrabetzu



LARRABETZU

MUSIKA ESKOLA

Matrikula zabalik
ikastegi homologatua

Errebale, 7 Behekoa
Tlf. 94.455.70.66
48195,-LARRABETZU
Derion, Institutoan



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

INGELESA
(Comprehension, grammar,
writing, reading)
FRANTSESA
TEINEREA
EUSKARA
GAZTELARRA

ESKOLA LAQUINTZA
(grammar, writing, reading)
ENPRENTZAKO IKASTAROA
MAIKA GUZTIAK
ORDUTEGI MALGUAK



Alta Patxi Ugalde, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikasgela@hotmail.com



OKINDEGIA - GOZOTEGIA

T'XISPAMENDI

Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu (Bizkaia) - 94 455 89 35



Remirez Instalaciones S.L.

ENPRESA INSTALATZAILEA:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Iturrikoetxe, 3
48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Hnos. Villegas



Andra Mari, 20 behea 48195 LARRABETZU
Tel.: 94 455 71 42 Bizkaia



LARRABETZU
BIZIA

ETKEEN
GURU DOGUZ
JAIETAN

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



Aliprox

Ondo pasa jaietan!

INES
JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



POLI-TENA
TABERNA

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

"Esperientzia asko bizi gura dot"

OLIVER BARRY |
bekea lortu dau Mundu
Batuaren Eskolan ikasteko



t/a: Itxaso Marina

Oliver Barry badabil Bosnia-Herzegovinara joateko faltan dituen egunak zenbatzen. Gazteak 16 urte ditu, Derion bizi da eta DBHko laugarren kursoa amaitu barri dau Gaztelueta ikastetxean. Orain dala gitxi beka bat emon deusie Mundu Batuaren Eskolan ikasteko, Móstarren. Mundu Batuaren Eskolea irabazi-asmorik bako erakundea da, eta guztira 13 ikastetxe ditu Amerikan, Asian, Europan eta Afrikan. Eskola 1962. urtean sortu zan helburu hau ebal: bakea eta nazinoarteko aditzea kultura anitzeko hezkuntzaren bitartez bultzatzea.

Azaldu deuskun bezala, arrebak be lortu eban bekea orain urte batzuk, eta horrengaitik animau zan eskaera egitera. "Ilusino handiz agindu neban, baina, egia esan, ez nintzan oso baikorra, normalean bekea nik baino urte bat gehiago daben ikasleei emoten deutseelako. Aukeratzeprosesua gainditu eta lortu dot; pozik baino pozago nago".

Móstarren urte bi egingo ditu eta Nazinoarteko batxilerra ikasiko dau bertan. Zehatz-mehatz ez daki abentura honek zer ekarriko deusian, baina auke-rea ahalik eta gehien aprobetxauko daua- la ziurtatu deusku. "Oso aberasgarria izango da, bai ikasketa arloan, bai arlo pertsonalean". Oliverrek 80-100 herritako gazteakaz ikasiko dau eskolan, eta face-

booken bidez jarri da kontaktuan hareetako batzuek. "Susmo ona hartu dot, eta uste dot ondo konponduko garala. Lagun barriak egiteko gogo bizia dot".

Aspertuta

Oso ikasle ona ez dala esan deuskun arren, 9,2 batez besteko notea dau bere espediente akademikoan. "Beti hobetu ahal da. Aitortu behar dot gehiena azken momenturako ixten daben ikasle horietariko bat nazala, baina hemendik aurrera asko ikasiko dot, eta egunero". Etorkizunean zertan ibili gurako leuken oraindik

ez dakiela aitatu deusku; argi dauan gauza bakarra da ezaguera euki gura daua ahalik eta gai gehienenguruan. Ingelesa eta frantsesa hitz egiten dau; eta euskerea, gitxi. Oliver Vigon jaio zan. Ama hangoa da eta aita ingelesa da. Txorierri- ra orain dala lau urte etorri ziran. "Asko gustaten jat, oso leku nasaia dalako".

Aspertuta dabilela dino, denpora libre gehiegi daualako. "Batez be orain, udan". Halanda be, guk ezin dogu ulertu zelan aspertu ahal dan, hamaika zaletasun dau-eta. Besteak beste, eskrima Euskadiko txapelduna da bere mailan; pia- noa eta bateria jotzen ditu; arku-tiroa egi- ten dau; saskibaloian be badabil; mendi- tik ibiltzea izugarri gustaten jako; libu- ruak, filmak eta musika iruntsi egiten ditu... Horrezaz gainera, boluntarioa be bada bere ikastetxeak dituen zenbait proiektutan. "Gauza asko ditut egin barik: urpekaritza eta parakaidismoa, esate baterako. Gitarra jotzen ikastea be gustau- ko litxakit... Ahalik eta esperientzia ge- hien izan gura dot; danetarik egitea gus- tauko litxakit". Bitartean, Mostarren izan- go dau hurrengo esperientzia. Bertara abuztuaren 21ean abiauko da.

*"Oso aberasgarria
izango da, bai ikasketa
arloan, bai arlo
pertsonalean"*

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleni emparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558895

GOI-ALDE
Peluleria
Estetika
94 455 81 44
Anguleni 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

**LARRABETZUKO
ESTANKOA**
Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...
Andra Mari kalea, 1 LARRABETZU
T: 944 558 110

URAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugalde, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Alaialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



GOITIOITZA, 7 B ESKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

epelargi@excavaciones.com



MOBILIA: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

Menú berezaleko antzerkietan • Egunkari menua eta karta
Etxera eramateko platerak • Jantziak eta edonak
Itxialdi antzerkietan • Jantziak zabalak

R.º Garaioitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

AM Formación y Traducciones

Matrikula zabalik

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitateko azterketak prestaketa, EOI...
- Zerbitzu berriak: Ingeleseko laguntza-eskolak

Garaioitza 120 D 48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementeri 16 48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

amformacion@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

a: Lezamako Udala

Ohikoa dan bezala, abuztuaren azken domekarako "Lezamako Mugetatik" mendi martxea eta lasterketea antolatu dabe herriko alkarte honeek: Lezama Bizirik, Gailurrek, Basobaltz eta Goitioitzako jai-batzordeak, Gurasoen Alkarteak, Zorriketanek, Ekidazuk eta Oxangoitik. Proba puntuagarria izango da Euskal Federakuntzak antolatzen dauen mendi lasterketen Euskal Koparako, eta izena emotea www.lezamakomugetatik.com webgunearen bitartez egin behar da. Ekimenak Andramariak hurbil baino hurbilago dagozala igarriko deutse lezamarrei eta gainontzeko txorieritarrei.

Txupinazoa arratsaldeko 7,30ean izango dan arren, herri bazkaria egingo da Legina auzoan, irailaren 2an. Paella prestaiko da, eta tiketak hiru euro balioko dau alde aurretik erosten bada; bost euro, bazkarian bertan erosten bada. Ostean, Briska eta Mus Txapelketak egongo dira eta irabazleek Lezamako produktuak jasoko dabez saritzat. Txupinazoa bota ostean, dibertimentua nagusi izango dan zazpi egunei emongo jake hasierare. Eta jaiak konplexu barik hasteko, Mozorro Lehiaketea egingo da barikuan. Aurtengo gaia "Mitologia" da, eta izena emotea Jai-batzordeko txosnan egin beharko da gaueko 9etatik 10etara arte. Musikea Gatazka eta Trikitio taldeen eskutik izango da.

Zapatuan Goitibehera jatsierare egingo da lehendabiziko aldiz. Jatsierare arratsaldeko 3etan izango da tren-geltokia-

Goitibeher egingo da le

Basobaltz Lezamako jai-batzordeak asmau dau beste behin be. Andramariak ez deuskue atsedetik emongo, eta zazpi egunean zehar hamaika aukera izango doguz jai-giroan murgiltzeko.

ren ondoko aparkalekuan, eta izena emotea ordu erdi lehenago egin beharko da. Halanda be, goitibeheraklezama@hotmail.com helbide elektronikoaren bitartez be egin daiteke. Epea abuztuaren 31ra arte egongo da zabalik eta mezuan datu honeek zehaztu beharko dira: izen-abizenak, NA zenbakia, partaide kopurua, lizentziarik daben ala ez, eta telefono zenbakia. Asegurua izateare beharrezkoa izango da jatsieran parte hartu ahal izateko, eta ez dauanak 10 euro ordaindu beharko ditu. Lasterketea Euskal ligarako izango da puntuagarria eta kategoria bakotzeko hiru sari emongo dira. Txapeldunak 90 euro jasoko ditu saritzat; 60 euro, bigarrenak; eta 30 euro,



a jatsierea hendabizikoz

hirugarrenak. Gauean kaleko antzerkia eta kontzertuak egongo dira: Larregi, Gatibu eta Gora Herria musika taldeenak, hain zuzen be.

Euskal jaia

Domekan goiz altzau beharko da, BTT Lasterketea ez galtzeko. Gainera, egun horretarako Euskal jaia / Baserritarren Eguna antolatu da, eta deia egingo da herritarrak euskal jantzia daroela kalera urtetera animau daitezana. Ekidazu abesbatzak eta talde konbidatu batek kontzertua eskainiko dabe, eta herri bazkaria egingo da. Besteak beste, umeentzako jolasak eta Astrapala taldearen emonaldia egongo dira arratsaldean. Odoloste Eguna eguaztenean izango da. Herriko tabernariak odolosteak banatuko dabez bezeroen artean eta arratsaldea trikitilariak girotuko dabe. Eguenerako, zaindariaren egunerako, pelota partiduak antolatu dira eta Kurutze taldeak dantzen agerraldia eskainiko dau. Ausartak antzerki taldea Casting-adas lana aurkeztuko dau.

Barikua Nagusien Eguna izango da, eta bazkaria eukiko dabe Adintsuen alkartean. Era berean, profesionalen pelota partiduak egongo dira, eta gazteek aukerea izango dabe skate eta roller tailerrez gozatzeko. Mariatxi eta TrikiTake taldeek musikea jarriko deusie gauari. Bola-Lekuko jaiak amaiera emongo deusie Lezamako andramariei. Goizean Paella Lehiaketea izango da. Izena emotea goizeko 12etatik 13etara arte egin beharko da, eta kazuelak 14:30ean aurkeztuko dira. Arratsaldean umeentzako jolasak eta txokolatada egongo dira eta Izargi taldeak alaituko dau gaua.



Egitaraua

Abuztuaren 28an, domekan

08:30: "Lezamako mugetatik" VI. mendi martxea.

10:00: "Lezamako mugetatik" VI. lasterketea eta martxa txikia.

Irailaren 2an, barikuan. San Antolín Legina Auzoan

12:00: Mezea. Ostean, kopaua eta trikitilariak.

14:30: Herri bazkaria.

16:00: Briska eta Mus Txapelketak.

Herrian

19:30: Txupinazoa.

19:30: Kurutze dantza taldearen emonaldia. Ostean, trikipotea tabernetik.

21:00: Txosnak zabaltzea.

22:00-24:00: Mozorro Lehiaketea.

23:00: Kontzertuak: Gatizka + TrikiTio.

Irailaren 3an, zapatuan

11:00: Umeentzako tailerrak.

14:30: Goitibehera jatsieran izena emotea.

15:00: Goitibehera jatsierea.

22:00: Kaleko antzerkia: *Spectrum*. Plazan.

23:00: Kontzertuak: Larregi + Gatibu + Gora Herria.

Irailaren 4an, domekan.

Euskal jaia, Baserritarren Eguna

10:00: BTT IV. Lasterketea, Zorribike txirrindulari taldeak antolatua.

12:00-14:00: Umeentzako jolasak.

12:30: Mezea. Ostean, Kontzertuak: Eki-dazu abesbatza + talde konbidatua.

15:00: Herri bazkaria, Zorriketan alkar-teak antolatua.

17:00-20:00: Umeentzako jolasak.

17:00: Astrapala eta antzerkia.

Irailaren 7an, eguaztenean.

Odoloste Eguna

19:00: Trikitilariak eta odolosteak, tabernetan.

Irailaren 8an, eguenean.

Andra Mari Eguna

12:00: Mezea.

18:00: Pelota eskolaren partiduak, Pelota alkar-teak antolatuta.

19:00: Kurutze dantza taldearen emonaldia, plazan.

20:00: *Casting-adas* lana, Ausartak antzerki taldearen eskutik. Laiak alkar-teak antolatua.

Irailaren 9an, barikuan.

Nagusien Eguna

12:00: Mezea.

Trikitilariak.

Bazkaria, Adintsuen alkartean.

18:00-21:00: Gazteentzako tailerrak, Hilario Astorki plazan: skate eta rollers.

22:00: Profesionalen pelota partiduak, Pelota alkar-teak antolatua.

23:00: Kontzertuak: Mariatxi + TrikiTake.


Irailaren 10ean, zapatuan.

Bola-lekuko jaiak

Paella Lehiaketea.

18:00: Umeentzako jolasak eta txokolatada.

23:00: Berbenea, Izargi taldeagaz.



TURTENETXE, SA
Kontzesionarioa | Banatzailea | Zerbitzu Teknikoa



Sogean Pol., 34. pab.
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomia, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18

48196 LEZAMA Bizkaia



S.A.T. LECU
SERVICIOS DE MANTENIMIENTO Y REPARACION

Fax: 94 455 64 17

Tel: 94 455 61 98

LA GUN KOR

ARETXALDE, 68 - 48196 LEZAMA
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

MOJULARRITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGUA

GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Ogiketa Dastalekua

- Prentsa
- Okindegia
- Kafetegia
- Otartekoak
- Pizak
- Hanburgesak
- Platerak
- Oplak
- 6:30-22:30

679343224
Aretxalde, 64
Lezama

Begoña

Ileapaindegia

- Astearte eta asteazkenetan,
merkeago 16-25
urteko neskentzat
- Xerloak + ile-mozketa
+ orrazketa (leuntzea)
39 €
- Abuztua, zabalik
(aldeaz aurretik deitu)

944 555 644
Garaioltza 121 - A
Lezama

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA: DUANON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
☎ 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
☎ 94 674 33 40

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Baskiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Baskiko Txakolina

Geltokia auzoa, 37
LEZAMA
☎ 94 455 61 46

CONSTRUCCIONES LANDETANE, S.L.

ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA

Tfnoa. eta faxa: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioltza auzoa, 142
48196 LEZAMA
Bizkaia

GOXO-GOXO LOHITZUN

Astetuetan zeharlik
Ogiz egutero
Postalek enkeratzen

Garaioltza, 77a
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Jai goxoa

a: Lagatzu

Ekainean Lagatzu Eguna-Euskal Jaia egin zan Zamudion, bertako euskera alkartearen 12. urteurrenaren haritik. Egund polita urten zan eta zamudioztarrek zein Txorierriko gainontzeko euskaltzaleek bat egin eben ekimeneagaz. Egund osoan zehar antolatutako ekitaldi guztietan ehunka lagun batu ziran.

Lagatzu Eguna-Euskal Jaiari kirola egiten emon eutsien hasierea, herri ikasketxean spinning maratonia egin zan-eta. Ehund eta berrogeta hamar lagunek –helduak zein umeak, tartean– osatutako kartoi banda kalejiran atera zan herritik, eta bertoko produktuen azokea ipini zan Leizaola plazan. Hamaiketakoari esker indarrak barritu ostean, kalejira-bira-danbapoteoa egin eben tabernaz taberna, txokoz txoko.

Herri bazkarian 600 lagun inguru bildu ziran, eta hareek, postrerako, perretxiko gozoa pastela dastatzeko aukerea izan eben. Pastela urteurrenerako atera dabe Lagatzukoek Bizkaiko Gozogileen Alkarteagaz batera, eta Aramendi Zamu-




lurrindegia **MAMEN** mertzzeria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusiak, orokortzen
Auzokoen komunikatzen
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbarrak garbitzen
Ikastetxeak
Zaberrak
Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unibax ileapaindegia
Estetika
Ordulegi jarraitua
Laser-depilazioa
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

“Euskal jantziaren bitartez gura d

ESTHER APRAIZ eta NEKANE AIARZA | Jantzi Jarauntsi Troupe

t: Itxaso Marina / a: JJT

Zergaitik taldea sortu?

Igaz, Olentzero Egunean, euskal jantzia bakarrik egun horretan janzten genduala komentatu genduan gure artean, eta beste data batzuetan be eroatera animau ahalko ginala. Era berean, inguruan begiratu, eta batez be umeek janzten ebela konturatu ginan; gurasoek eta aitita-amonek ez dabe euskal jantzia erabilteko ohiturarik. Horregaitik erabagi genduan lehengo pausua guk emotea, eta jentea hainbat ekimenetan euskal jantzia janztera animau. Halan sortu zan ideia da, eta ilusinoz beteta dagoanez, aurrera egin dau.

Beraz, euskal jantziari berriro emon gura deusazue antxinako protagonismoa.

Bai, eta ez bakarrik Derion edo Txorie-rin antolatzen diran ekimenetan. Izan be, badogu taldearen mamina beste herri batzuetara zabaltzeko asmoa. Esate bate-

Jantzi Jarauntsi Troupe e-kainean aurkeztu zan jentte-aurrean. Derioko alkar-teak dauan helburua gu-rean egiten diran ekimen guztietan euskal jantzia berreskuratzea da. Esther Apraiz eta Nekane Aiarza troupelariiek emon deus-kuez kakoak.

rako, Gorlizetik deitu deuskue poteo baten parte hartzeko, eta deia Olabeagatik be jaso dogu. Euskal Jaia egingo da bertan eta guk girotzea gura dabe.

Nortzuek osatzen dozue taldea?

Hogeta hamar lagun inguru gara, hogeta hamar urtetik berrogeta hamar urtera bitartekoak. Gehienok derioztarrak

gara; eta lauzpabost, beste herri batzuetakoak. Ekitaldietara seme-alabak eroaten doguz gugaz. Baina gurea ez da talde itxia eta gura dauan guztiak jarri daiteke gugaz harremanetan: jaja@jajatroupe.com. Bardin deutso Deriokoa edo beste herri batekoa izan.

Izen deigarria da zuena.

Alde batetik, aitita-amamen janzkera berreskuratu gura dogu, eta horregaitik aukeratu genduan izentzat “jantzi jarauntsi”. Bestetik, ikutu moderno bat be emon gura geuntsan, eta handik dator “troupe”. Tradizioaren eta modernitatearen arteko fusioa da.

Taldearen aurkezpen ekitaldiari be oso izen arraditsua ipini zeuntsien: Revival Janzkera 2011.

Taldea hasi barria zan, eta bagenkian jente askok ez ginduzala oraindino ezagutzen. Horregaitik aukeratu genduan izen hori, deigarria zalako eta herritarrengan kuriosidadea bizteko. Aurkezpen ekitaldia oso ondo urten zan. Aitor Elizegi eta Elena



ogu gozau"

*"Taldearen mamina
beste herri batzuetara
zabaltzeko
asmoa dogu"*

Unzueta izan genduzan aitabitxi eta ama-bitxi, eta triki-poteoan ibili ginan herritik. Bazkaria be euki genduan.

Zelan hartu dabe herritarrek taldea?

Jentea hasi da gu ezagutzen, interesa dabe taldeagazko eta galdetu egiten deuskue antolatzen doguzan ekimenen inguruan.

Oso talde gaztea izan arren, dago-neko hainbat ekimen antolatu dozue.

Buruko zapia ipinten ikasteko tailerra, txangoak, Bilboko Etnografia-museora urteera, trikiti eta pandero ikastaroa, jota ikastaroa... Talde dinamikoa izan gura dogu eta batzordeak sortu doguz gure baitan. Bakotxa datorren ikasturtera begira zer antolatu daitekeen aztertzen dabil.

Zuen beharrak osagai didaktikoa be badau.

Arretaz begiratzen bada, ikusi daiteke jenteari bardin deusala euskal jantziagaz urteteak, baina zapatilak jantzita dabezala, buruko zapi barik... Guk detaile horreek guztiek daben garrantzia erakutsi gura deusagu jenteari. Buruko zapia ipinten ikasteko ikastaroak, esate baterako, zapia zergaitik ipinten dan azaltzea eban helburuen artean, eta merezi dauan inportantzia emon ekiola. Horren haritik, zapia Txorierrin antxina zelan ipinten zan ikertzeko asmoa dogu, eta gauza bera egingo dogu euskal janzkera osatzen daben beste elementu batzuekatz: txapela, garrikoa...

Ekarpen polita egingo deutsezuena Txorierriri eta herritarrei.

Euskal jantzia berreskuratzea dogu helburu, eta harenganako interesa biztu. Euskal jantziaren bitartez gura dogu gozau, eta berau jantzita dogula eroso senti-du. Jenteari sentimentu hori kutsatu gura deusagu.



**OPTIKA IKUSLAN**
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

**ZAMUDIO**
LIBURUDENDA PAPERDENDA
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**TALLERES JUAN ANDRES**
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA
**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**
Oiz Kalea, 1 • Tel: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Patxi KOOP.
BANATZAILA OFIZIALA

Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarte kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 87
patxikoop@patxi.coop

Biharko ingeniariak

Umeek kirola edo hizkuntzak jorratzen dituzte eskolaz kanpoko ekintzetan. Ez dago ezer teknologiarri buruz. Edo ez zegoen, hobeto esatearren: uztailan udaleku teknologikoak antolatu dira estreneko aldiz BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroan, Zamudion. Guztira Euskal Herriatik zein kanpotik etorritako 200 gaztek hartu dute parte.



t/a: Gaizka Eguskiza

Jesus Angel Bravo Strelia arabar enpresako zuzendaria da. Streliak informatika eta berrikuntza lantzen ditu. Teknologia, beraz, izugarri interesatzen zaio Jesus Angeli, eta zaletasuna bere 14 urteko semeari helarazten saiatu zen era dibertigarri batean. Orduan udaleku teknologikoak sortzea bururatu zitzaion. "Estatu Batuetan ohikoa izan arren, Estatu mailan ez dago ezer antzekorik. Hemengo udaleku teknologikoa erabat aitzindaria izan da", esan digu. Udalekua uztailan zehar egin da Bizkaiko Teknologia Parkean.

"Eskolatik Kanpo, hizkuntza edo kirolari lotutako hainbat ekimen daude, baina batek ere ez du teknologia jorratzen. Hutsune hori bete nahi izan dugu. Eskolek interes handia dute proiektuan, euren plangintzak osatzen laguntzen diegulako". Ikastetxeetarako ez ezik, umeentzat ere bada onuragarria udalekua. "Gazteek jokoan bidez ikastea nahi izan dugu. Egunero erronkak jarri dizkiegu umeei. Horrek sormena eta irudimena pizten ditu, eta, era berean, parte-hartzaileek aukera dute arazoak konpontzeko gauza direla ikusteko".

Ikastaro mota bi eman dira udalekuan: bata, *Bots week*, robotika landu du. Modulu horretan Lego enpresak sortutako hezkuntza-proiektuari jarraitu diote antolatzaileek: umeek lego piezen bidez robota eraiki eta programatu behar izan dute. Beste ikastaroan, *Videogames week*, *Scratch* software askeko plataforma erabili

*Gazteak robotak
eta bideojokoak
diseinatzen ibili
dira udalekuan*

*Estatu mailan
ekimen aitzindari
horrek gazteek
jokoan bidez ikastea
izan du helburu*



dute neska-mutilek, bideojokoak diseinatu eta garatzeko. "Ikastaro biak antzekoak dira: bideojokoena, artistikoagoa; robotena, mekanikoagoa". Gazte batzuek surf ikastaroa ere egin dute arratsaldeetan, Sopelan. Hala edo nola, giro dibertigarri eta alaian ibili dira umeak elkarlanean.

% 90, mutilak

Guztira, 200 umek hartu dute parte udalekuan, baina txandaka hurbildu dira Zamudiora: 50, aste bakoitzeko. Taldeak handiak badira ere, batez ere hiru lagunek osatutako talde txikietan ibili dira lanean. Parte-hartzaileak hainbat lekutatik etorri dira: txorierriarrak (Lezamakoak edo Zamudiokoak, esate baterako), bizkaitarrak, arabarrak, gipuzkoarrak, Frantziakoak, kataluniarrak... Teknologia gizonezkoei

lotzen zaie askotan, eta udalekua ez da salbuespena izan; hara joan diren gehienak, % 90, mutilak izan dira.

Udalekuaren hizkuntza nagusia ingelesa izan da, baina horrek ez die oztoporik ekarri umeei. Hala dio Sarak, umeen begiraleetako bat. "Ingelesa ez da arazorik izan, gazte guztiek gutxi gorabehera ulertzen dutelako. Gainera, euren artean, euskaraz eta gaztelaniaz egin dute. Zamudiokoak ez da hizkuntza-udalekua izan, teknologia-udalekua baizik". Jesus Angelen ustez, "teknologiaren hizkuntza ingelesa da, eta horregatik azalpenak, softwarea-eta ingelesez eman dira. Horrela, beste hizkuntza batean lan egiteko ohitura hartzen dute, beldurrik gabe".

Sarak oso interesgarria deritzo campuari. "Umeek gauza berriak ezagutzeko aukera izan dute udalekuan. Guk bidea eman diegu, eta gero euren euren irudimena landuz, nahi izan dutena hartu dute. Gainera, primeran pasatu dute". Beste abantaila baten berri eman digu antolatzaileak. "Hemen erabili dituzten programak etxean ere erabil ditzakete. Beraz, udalekua amaitu eta gero, aukera dute teknologian murgiltzen jarraitzeko".

Umeak gurasoak bezain pozik ibili dira udalekuan, baita antolatzaileak ere. "Datorren udan berriro egiteko asmoa dugu; are gehiago, hurrengo ikasturtean, hau da, irailetik aurrera, teknologiari lotutako eskolaz kanpoko jarduerak antolatu nahi dugu, eta eskolek interes handia adierazi dute". Ekimenak aurrera eginez gero, ordu gehiago hartuko dute umeek teknologiarantz hurbiltzeko. Baita Jesus Angelen semeak ere.



GORBEIA MERTZERIA

Gorbela kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTIA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARRETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (Bizkaia) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinao 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

LAPIKO/s.l.
Enpleguaren mundukoak, Dikaratu

Pl. Garatzen, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tel: 94 455 63 98 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

Badira hamaika arrazoi **Baserri**
Antzokiaren bazkide egiteko



...uste baduzu ekarpenen bat egin ahal duzula, gustura hartuko dugu

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Luki!
–**Halan** ekarri berbalagun taldeko lagunok!
–Kafea hartzera gonbidatu zaitugu oporretan goaz-eta.
–Mila esker.
–Aiko hemen, Luki, zuk erantzuteko prestatu ditugun galderak.
–Bota ba!
–Zu zelan janzten zara udatean?
–Ikusi!: **mangutsik** eta oinutsik edo ortozik. Gazteak, berriz, bernak agerian ere ibiltzen dira.
–Zure ustez, Luki, eguzkia hartzea ona da?
–Niri egun argiak optimismoa ematen dit, baina eguzkia 10 minutuz edo baino ez dut hartzen.
–Zer da Luki ez daukanak daukanari ematen diona?
–Lotsa! Lotsarik ez duena biluzik dabil kalean. Bera ez da lotsatzen, baina inguruko ezagunak eta etxeak bai. Lotsa ari-maren jantzia da.
–Oso ideia polita Luki.
–Bai! Gainera, lotsabakoek Kaiman uharteetan hartzen dute eguzkia, paradisu fiskaletan. Adanek eta Ebak pikondoa-ren orri latzekin estaltzen zituzten parte erotikoak lur paradisuan. Ostera, Kaiman uharteetako zerga paradisuan, aberatsek opor fiskalak hartzen dituzte; kentzen dute lotsaren janzkia eta interesen izpi ultramorea hartzen dituzte potroz gora etzanda.



Oporretan biluzik

–Zu izan zara inoiz Luki hondartza nudistetan?
–Gutxitan. Dena dela, udatiar batzuk beti ibiltzen dira larrugorritan; beste batzuk, aldiz, biluzik baina sonbreiruarekin; beste batzuk biluzik, baina esku-larruak kendu gabe. Eta badakizue nafarrak nola?

–Nola ibiltzen dira nafarrak Luki?
–Behin Iñigo euskaltzainak kontatu zidan, Txantreako erdaldun batek galdetu ziola: Nola igarriko zenioke hondartza nudistako bati nafarra dela? Eta erdaldu-nak berak eman ziola erantzuna: Ba nafarra izango da jertsea besapean daramana, “por si refresca”.



Tlf: 944 478330
www.aisiahoteles.com



Tlf: 944 540574
www.pandpderio.com

GOLF GASTRONOMIKOA eskaintza berezia:
relax zikuitua, menu berezia eta green
fee bat, 9 zulotako golf-zelairako.

45€
pertsonako
beza baxe



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Nor dabil
diskoa
prestatzen?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Jantzi Jarauntsi Troupe

Irabazlea:

Alberto Gainza

Perretxiko eta ahuntz-gaztai entsalada epela

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Letxugea
- 4 arrautza egosi
- 16 karramarro-taket
- 200 g perretxiko
- 4 ahuntz-gaztai xerra
- 100 g ogi arraspaua
- 100 g intxaur
- Koilarakadatxu bat azukre
- Koilarakadatxu bat ezti
- Koilarakadatxu bat ur
- Oliba-orioa
- Modena ozipina
- Gatza eta piperbeltza

Prestateko erea:

Letxugea garbitu eta plater handi baten ipiniko dogu. Arrautzak xerra mehetan ebagiko doguz. Intxaurrak karamelatze-

ko, ontzi batean jarriko doguz azukerea, eztia eta ura. Kolorea hartzen hasten diranean, intxaurrak botako doguz eta surtan 5-10 minutuan eukiko doguz. Ontzitik atera eta hotzitzen itxiko doguz. Perretxikoak garbituko doguz eta plantxan egingo doguz oliba-orio apur bategaz. Ozipin-orio saltsea egiteko, hiru koilarakada orio, koilarakada bat ozipin eta koilarakada bat ezti erabiliko doguz. Gatza eta piperbeltza botako doguz. Gaztaiaren gainean ogi arraspau apur bat ipini, eta zartaginean gorrituko doguz xerrak. Entsaladea halan atonduko dogu: letxugea, karramarro-taketak, arrautza, eta perretxikoak. Ozipin-orio saltsea botako dogu eta gainean gaztaia eta intxaurrak jarriko doguz.



Etxeko sukaldaritza

Gatzatu flana



Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak:

- 4 arrautza
- Litro bat esne
- 2 sobre gatzatu
- 6 koilarakada azukre
- 3 koilarakada azukre, ur apur baten karamelatuak

Prestateko erea:

Surtan litro erdi esne ipiniko dogu eta azukerea botako deusagu. Sobra dogun esnetik litro lauren bat bereiziko dogu eta hara gatzatuak botako doguz. Surtan dagoan esnea irakiten hasten danean, nahasketa gehituko deusagu. Surtan izango dogu berriro irakin arte. Hotzitzen itxiko dogu. Bestalde, arrautzak beste litro lauren esnera botako doguz. Irabiauko doguz. Dana ondo nahastuko dogu eta nahasketa molde karamelatueta botako dogu. Labea 180 gradutan berotuko dogu eta flanak 40 minutu inguruan eukiko doguz han, Maria bainuan.

 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

 **Garmendia ardoak**
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna or. 7, 1. planta
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12
ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta
Osoan zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTU-ORNTZIA ESTETIKA
HAIKAR HEPHELOK
Dr. Areiza kalea, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonu: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonu: 94 452 13 70



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Un ange passe*, Isilaldietan, Pello Lizarralde
- Zer barkaturik ez*, Alberto Ladrón Arana
- Orbelak airez airez*, Batzuk
- Biziaren bidean*, Odon Noblia
- Aita artzain zen*, Panpeia Etxebarnere

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Pozik*, Mies Van Hout
- Irakurriko al didazu ipuin bat?*, Batzuk
- Heroia izan nahi zuen mutikoa*, Sylvain Trudel
- Nimen uhartea*, Wendy Orr
- Azken udako espiritua*, Susana Vallejo

MUSIKA

- Homo sapiens?*, Su ta gar
- Rat-zinger*, Rat-zinger
- Copenhagen*, Kea
- Kantadantzak*, Batzuk
- Umeen zentzune, etxean entzune*, Batzuk

Sudokua

	6			4	5			
	4			8				
						2		3
		9						
		4	8	1	9		6	5
		5				4	1	
				5	7			
7						9	2	
2			4			8		

7	5	8	6	9	4	3	1	2
4	2	9	8	3	1	5	6	7
1	3	6	7	5	2	8	9	4
9	4	1	3	6	5	7	8	2
5	9	7	6	1	8	2	4	3
2	6	1	5	7	4	3	8	9
3	8	7	9	6	1	2	4	5
6	9	2	5	8	7	4	3	1
8	1	7	4	5	3	2	6	9



Azokak

Loiu

- > VI. Azoka ekologikoa. Irailaren 4an, 10:30etik aurrera, Elotxelerrin.

Erakusketak

Sondika

- > Altzora euskara elkarteak antolatutako Argazki Lehiaketaren lanak. Irailaren 22tik urriaren 11ra arte, Erakusketa Aretoa.

Ikuskizunak

Derio

- > *Piratas del Caribe, en mareas misteriosas* filma (aire zabalean). Abuztuaren 6an, 22:00etan, Koltza plazan.
- > *Como perros y gatos II, la revancha* filma (aire zabalean). Abuztuaren 20an, 22:00etan, Sollube kalean.

Zamudio

- > Txotxongiloak: *Adarbakar urdina*. Irailaren 24an, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Ontón – La Arena hondartza. Irailaren 25ean, 9:15ean, eskolako aparkalekuan.



Sondika

- > Santo Domingo de Silos – Covarrubias – Lerma. Irailaren 10ean. Izena emateko epea: irailaren 6ra arte.
- > Errioxa. Irailaren 18an, Arroeta mendi taldeak antolatua. Informazio gehiago: 946088285.
- > Asturias. Irailaren 30etik urriaren 2ra, Arroeta mendi taldeak antolatua. Informazio gehiago: 946088285.

Kirola

Zamudio

- > Plater-tiro Bizkaiko Txapelketa. Irailaren 11n, Teknologia Parkeko tirozelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkartearen eskutik.

Bestelakoak

Sondika

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 6tik 12ra, liburutegian.
- > Autorik gabeko eguna. Irailaren 22an, 17:00etan, Goronda Beko kiroldegian: tailerrak, jolas-parkea...
- > Altzora euskara elkartearen aurkezpena. Irailaren 23an, 18:00etan, Kultur Etxean.



Zamudio

- > Hobetu zure mugikortasuna! Irailaren 16an, 16:30ean, frontoian: antzerkia, ibilbidea...; irailaren 17an, Bidekoetxe parkean: zikloturista; irailaren 20an, Aresti gelan: eraginkor gidatzeko ikastaroa (izena emateko epea: irailaren 6ra arte, Udaletxean); irailaren 22an: Zamudio ibilgailu barik.
- > Jai-batzordeko batzarra. Irailaren 20an, 19:30ean, Udaletxean.
- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 23ra arte.

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzalea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Torrelarragoiti ind. P 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
E-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

TXORIERRI Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
Kontingente gerta
AMOLKULARRITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ERKUALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROEN BILBAOAREN AGENTZIA

eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7 (Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak
ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BATHUGELAKO ALTZARIAK
Tel.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Inmobiliaria ETORKI
Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53 48160 DERIO

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK O FRAKHILERIAK
Ugaldeguren 1 ind. 16-B nabes
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 82 93 - Faxa: 94 454 50 63

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK O FRAKHILERIAK
Ugaldeguren 1 ind. 16-B nabes
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 82 93 - Faxa: 94 454 50 63



Parte hartu
gure jaietan



Ayuntamiento de
Lezama ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

JANARIDENDA
Josune Zabala Goikoetxea

Garaioltza, 74
48196 Lezama
Bizkaia
Tel. 944 556 248

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK



BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

Tel.: 946 409 222
600 528 630
Fax: 946 409 126

Aretxalde, 68
48196 Lezama
www.simepack.es
maite@simepack.es

SimePack
paketeria - mezularitza - presako garraioak

Gaztedi
berria *tavern*

- Menuak, astegun zein asteburuetan •
- Otarkekoak eta **anoak** • 40 lagunentzako **jantokia**
- Hainbat **garagardo** eta **ron mota** •
- Musika ezberdina, **gitro** ederra
- **Telebista** erraldoia •
- Jokoak**: dardoak, futbolina, billar • **WiFi** gunea
- **Terraza** eta aparkalekua •
- Rabak**, igande eta jai egunetan •



• Aretxalde auzoa, 141
• 48196 Lezama
• Tel.: 94 455 61 44




La Cruz auzoa - Tel. 94 455 61 02 - Lezama (Bizkaia)






OXANGOITI
Kutur Elkarteak **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA





BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barrio Garaioltza, nº23

48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Tel: 94 455 50 63 / Faxe: 94 455 62 45

e-mail: lorra@lorra-cg.net

www.lorra-cg.net